

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Laburpena, Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko uztailaren 30eko ebazpenarena (44/2026 bilkurako erabakiaren ziurtagiria). Ebazpen horren bidez, 2025. urtean seme-alabak jaiotzeagatik eta/edo adoptatzeagatik dirulaguntzen deialdia onesten da

BDNS(Identif.): 926230.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/926230>).

Lehenengoa. Onuradunak

Baldintza hauek betetzen dituzten gurasoak:

2025ean jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik emango dira dirulaguntzak.

Onuradunak bost urtez egon behar du Amurrion erroldatuta azken hamar urteetan eta, horietatik bat, gutxienez, modu jarraituan eta jaiotzaren edo adopzioaren egunaren aurre-aurrekoan.

Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezin daitezke izan 22.000,00 euro baino gehiago. Laguntzak eman ondoren aurrekontu partidan kreditu erabilgarria egonez gero, eta kasu horretan soilik, laguntza eman ahal izango zaie urteko 22.000,00 eta 25.000,00 euro arteko diru sarrerak dituzten familiei. Diru sarreren bigarren tarte horretan dauden familiei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, diru sarreren lehenengo tarteari dagozkion laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.

Ezinbestekoa da eskatzailearen familia unitate osoa Amurrion erroldatuta egotea seme-alaba jaiotzen den edo adoptatzen den momentuan, eta eskaera aurkeztzen den unera arte jarraitu behar da baldintza hori betetzen.

Bigarrena. Xedea

2025ean seme-alabak izan edota adoptatzeagatik norgehiagoka bidez emango diren dirulaguntzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arauak

Behin betiko onetsi ziren, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2026ko maiatzaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, eta haren eduki osoa argitaratu zen urte 2025eko uztailaren 8ko ALHAOn (77. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 10.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 30 egun natural igaro arte.

Amurrio, 2026ko abuztuaren 25a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA